



**Azterketa honek bederatzi galdera ditu (zortzi 2 puntukoak eta bat 4 puntukoa). Erantzuteko, bi aukera dituzu:**

**- bi puntuko bost galderari erantzutea**

**- bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari erantzutea**

**Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.**

**Ez ahaztu azterketa-orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

### 1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakurri testua, eta erantzun galderari:

#### GAMESAREN GAINEKO OPA, IRAGARKIA ARGITARATU ETA HIRU HILABETERA ONARTZEKE

Siemens Energyk Siemens Gamesaren akzioen % 100 bereganatzeko **OPA** bat aurkeztuko zuela iragarri zenetik hiru hilabete pasatxo igaro direnean, eragiketa prozesu burokratiko betean dago. Baimena nahitaezkoa da epea betetzen hasteko eta euskal enpresa eolikoko akziodunek behin betiko erabakia hartu ahal izateko.

Siemens Energyk Gamesaren akzioen % 67 kontrolatzen ditu, baina beharrezkotzat jo du % 100 bereganatzea enpresa salbatzeko, krisi sakonean murgilduta baitago milioi askoko galerekin. Metatutako zenbaki gorriak ikusita, Alemaniako **multinazionalak** pentsatu du energia eolikoan aritzen den filiala likidezia-zailtasunetan sar zitekeela baldin eta, uste zuten bezala, bankuek finantzaketaren iturria moztzen bazuten emaitza txarren aurrean. Akzio guztiak kontrolatuta, enpresaren arduradunek defendatu dutenez, finantza-sektoreari abal gehigarri bat eskainiko diote, talde osoaren babesaz gainera, zorra birfinantzatu ahal izateko eta krisitik irteteko aukera emango dien **finantzaketa** lortzeko.

Hasiera batean aurreikusitakoa baino gehixeago atzeratu da izapidea, baina Siemens Gamesaren ibilbide-orriak prozesu osoa 2022a amaitu baino lehen amaitzea aurreikusten du. Eta horrek esan nahi du ez dela soilik eskaintza modu eraginkorrean abiaraztea eta akziodunek iritzia emateko epe bat uztea, baizik eta baita sozietatea burtsatik ateratzea ere. Siemens Gamesak baldintza gisa jarri du berak kontrolatzen ez duen kapitalaren % 23k gutxienez eskaintza onartzea, eta horrek akzioen % 90 bere eskuetan izatea ahalbidetuko lioke.

Euskal eolikoak benetako odoluste ekonomikoa du. Azken ekitaldi fiskaleko lehen bederatzi hilabeteetan 1.226 milioi euro galdu ditu, eta badirudi hurrengo



## ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

hiruhilekoa ere oso negatiboa izango dela. Testuinguru horretan, Siemens Energyk premiazkoa du finantza-egonkortasuna ematea konpainiari.

Galderak:

- Definitu eta azaldu testuan azpimarratutako hitzak.
- Zein da prentsa-artikulu honetan azaltzen den ideia nagusia?

### 2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

TALAKO enpresak produktua ekoizteko beharrezkoa duen osagai bat Txinatik inportatzen du. Azken urteko hornidura-arazoa ikusita, berak ekoizteko aukera planteatzen ari da, errentagarria bada behintzat. Honako datu hauek ditu: osagaia ekoizteko 21.000 €-ko kostu finkoak ditu eta osagaiaren 10.000 unitate ekoizteko 15.000 €-ko kostu aldakorak izango ditu. Aurten, osagai horren merkatuko prezioa 2 € da, eta salmenten aurreikuspena 40.000 unitatekoa da.

Datu horiekin, kalkula ezazu:

- Komeni zaio enpresari osagaia fabrikatzea? Arrazoitu erantzuna.
- Salmenten aurreikuspenak kontuan hartuta, zenbatekoak izan beharko lukete kostu finkoek enpresarentzat osagaia fabrikatzea edo erostea berdina izateko?
- Egin egoeren irudikapen grafikoa.

### 3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

SKATE-BOSS enpresak skate-taulak egiten ditu. Iaz 25.000 € ordaindu zituen lehengaiak erosteagatik. Erositako lehengai guztiak kontsumitu zituen eta haien batez besteko saldoa 2.500 €-koa izan zen.

Urteko salmentak 45.000 €-koak izan ziren (merkatuko prezioan). Bezeroen batez besteko saldoa 12.000 €-koa izan zen.

Beste datu batzuk:

- Urte horretan izandako ekoizpen-kostua 30.000 €-koa izan zen.
- Urteko salmentak 34.000 €-koak (kostu-prezioan) izan ziren.
- Batez beste 30 egun behar izan ziren hornitzaileei ordaintzeko.
- Skate-produktu amaituen batez besteko saldoa 2.800 €-koa izan zen.
- Ekoizpen-prozesuan zeuden skateen batez besteko saldoa 2.900 €-koa izan zen.
- urte bat = 365 egun

Kalkula ezazu:

- Batez besteko heltze-aro ekonomikoa. Azaldu emaitza.
- Batez besteko heltze-aro finantzarioa. Azaldu emaitza.



#### **4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu**

- a) Adierazi ea adierazpen hauek egia ala gezurra diren. Arrazoitu erantzuna.
1. Sozietate anonimo baten kapitala akziotan banatuta dago eta sozietatearen erantzukizuna mugagabea da.
  2. Sozietate anonimo batek bere akziodunen artean banatzen duen mozkinen zatiari dibidendu pasiboa deitzen zaio.
  3. Enpresa baten organigrama enpresaren antolakuntza-egituraren adierazpen grafikoa da.
  4. *Just in time* sistemaren helburua da inbentarioko izakinen kopurua ahalik eta handiena izatea, kostuak murrizteko.
  5. Enpresa baten maniobra-funts positiboak adierazten du pasibo korrontea aktibo korrontea baino handiagoa dela, eta enpresak zailtasunak izango dituela aktibo korrontearekin epe laburreko zorrak ordaintzeko.
  6. AMIA metodoa enpresan eragina izan dezaketen barneko eta kanpoko faktoreak aztertzeke metodo bat da. Alde batetik, indarguneak eta ahuleziak aztertzen dira, eta bestetik, aukerak eta mehatxuak.
  7. *Trustak* ekoizpen-sektore bereko enpresa-elkarteak dira. Ia erabat kontrolatzen dute merkatua, eta ados jartzen dira prezioetan eta salmenta-estrategietan.
  8. *Start up* bat enpresa tradizional bat da.
  9. Kontratu mugagabea ez da zehazten kontratua noiz amaituko den. Kontratu finkoa ere esaten zaio.
  10. Enplegua erregulatzeko espediente (EEE) gastuak murrizteko prozedura bat da, egoera larrian dauden enpresek erabiltzen dutena: plantilla murriztean edo lanaldia murriztean datza.

#### **5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu**

HOTZIZER SA enpresak eskularruen salerosketan dihardu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu maiatzean biltegian:



**ENPRESAREN EKONOMIA**

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

05/01	Hasierako izakinak	27 unitate 10,60 €/un
05/07	JAKA hornitzaileari erostea	33 unitate 11,00 €/un
05/10	KIROL bezeroari saltzea	37 unitate 19,35 €/un
05/15	ASTUN hornitzaileari erostea	58 unitate 11,20 €/un
05/18	SPORT bezeroari saltzea	20 unitate 21,50 €/un
05/23	SNOW bezeroari saltzea	30 unitate 22,95 €/un
05/30	BAQUEIRA hornitzaileari erostea	77 unitate 11,50 €/un

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

**6. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.**

GAUTZO enpresak bere negozioak hurrengo urteetan izango duen zabalkuntzarako makina bat erosi nahi du, eta bi inbertsio-aukeraren artean hautatu behar du, A eta B aukera.

**A inbertsio-aukera.**

Inbertsioak 4 urteko iraupena du. Makinaren kostua 105.000 € da, eta herena ordaintzen da hasierako momentuan. Bigarren ordainketa, bigarren herena, lehen urtearen amaieran egingo da eta hirugarren ordainketa, hirugarren herena, bigarren urtearen amaieran.

Inbertsio horri esker, makina berriarekin egin nahi dituen produktuak saltzeagatik 40.000, 50.000, 60.000 eta 46.000 € kobratuko lituzke hurrenez hurren. Urte bakoitzean ordaindu beharko liratekeen ekoizpen-kostuak 5.000, 10.000, 15.000 eta 7.000 €-koak izango lirateke. Inbertsioaren balio-bizitza amaitzean, makina salduta 2.000 € kobratzea aurreikusten da.

**B inbertsio-aukera**

Inbertsio honen iraupena, berriz, 3 urtekoa da, eta 110.000 €-ko inbertsioa eskatzen du. Makinaren prezioaren erdia erosteko unean ordaintzen da eta gainerakoa, lehen urtearen amaieran.

Makina horren mantenimentua kontratatuko litzateke, eta, horretarako, urte bakoitzaren amaieran 300 € ordaindu beharko lirateke. Inbertsio honek eskainiko lituzkeen kutxa-fluxu garbiak (makinaren erosketa eta mantentze-gastuak kontuan hartu gabe) 20.000, 25.000 eta 35.000 € izango lirateke. Hirugarren urtearen amaieran, makina 20.000 €-an saltzea aurreikusten da.

Kontuan hartuta inflazio-tasa % 5,9 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa % 3 dela:



**ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

Kalkula ezazu:

- Zein inbertsio aukeratu beharko luke berreskuratze-eparearen irizpidea (*pay back* irizpidea) erabiliz gero? Arrazoitu erantzuna.
- Eta zein inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren irizpidearen arabera (BEG irizpidea)? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik (BEGa edo *pay back*), zein da egokiena? Zergatik?

**7. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.**

CASTELL enpresak kandelak ekoizten eta merkaturatzen ditu. 2022an 250.000 kandela ekoitzi eta saldu ditu. Kandela horiek unitateko 1,5 euroko prezioan saldu dira. Fabrikatzeko, enpresak 400.000 kilo argizari erosi ditu kiloko 0,25 euroko kostuarekin, eta 150.000 euro gastatu ditu plantillako langileei ordaintzeko. Sei langile ditu, eta haietatik bi lanaldi partzialean daude: lanaldi osoaren % 75 betetzen dute. Lanaldi osoko langile batek 1.936 lan ordu egiten du urtean.

FABER enpresa CASTELL enpresaren lehiakide nagusia da, eta 2022an 235.000 kandela ekoitzi eta saldu ditu. Era berean, sei langilek osatzen dute plantilla, eta haietatik hiruk lanaldi partzialean egiten dute lan: urtean 1.258 ordu. Lanaldi osoa egiten dutenek, berriz, 1.936 ordu egiten dituzte urtean.

Emandako informazioa kontuan hartuta, honako hau eskatzen da:

- Kalkula ezazu zer produktibitate izan duten 2022an CASTELL enpresak eta FABER enpresak (lanordu bakoitzeko).
- Bi enpresetako zein da produktiboena lanorduko 2022an?
- Jakinda CASTELL enpresaren produktibitatea, 2021ean, 22,9 kandelakoa izan dela lanordu bakoitzeko, adieraz ezazu, ehunekotan edo aldakuntza-tasa baten bidez, zenbat produktiboagoa den (orduko) CASTELL enpresa 2022an, aurreko urtearekin alderatuta.
- Kalkulatu CASTELL enpresaren 2022ko produktibitate globala.

**8. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.**

HIBOR SA enpresak ondare-datu hauek aurkeztu ditu 2022aren amaieran:

Banaketarako furgoneta	62.000 €
Lehengaiak erosteagatik dituen zorrak	33.200 €
Bulegoko eta bestelako altzariak	57.000 €
Bezeroak onartutako letrak	81.700 €
Zenbait kontzepturengatik Ogasun Publikoari zor diona	15.900 €



**ENPRESAREN EKONOMIA**

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

Bulegoan duen dirua	28.500 €
Jarduera garatzeko lokala	198.000 €
Kontu korrontean duen dirua	68.000 €
Bankuak emandako 3 urterako mailegua	240.000 €
Ibilgetuaren amortizazio metatua	18.000 €
Makineria	46.800 €
Biltegiaren dauden lehengaiak	8.400 €
Produktu bukatuak	21.000 €
Gizarte Segurantzari zor diona	8.900 €
Hornitzaileei onartutako merkataritza-efektuak	56.000 €
Aplikazio informatikoak	12.000 €
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	8.900 €
Bazkideek egindako ekarpenak	xxxxxx

Datu horiekin, honako hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea eta kapital soziala kalkulatzeko.
- Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko, irudikatzea eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
  - Ibilgetua.
  - Zorpetzea.
  - Likidezia.
  - Bermea.
  - Diruzaintza.

**9. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.**

Gaurkotasun-galdetegia. Erantzun galdera hauei:

- Definitu inflazio terminoa.
- Zein izan zen inflazioa Espainian 2022an? (gutxi gorabehera)
- Zenbat igo dira pentsioak 2023an aurreko urtearekiko? (gutxi gorabehera)
- Zenbat igo da lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) 2023an? (gutxi gorabehera)



**ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

***Este examen contiene nueve preguntas (ocho de 2 puntos y una de 4 puntos). Debe contestar:***

- o bien a cinco preguntas de dos puntos***
- o bien a tres preguntas de dos puntos y a la de cuatro puntos.***

***Si se responde a más preguntas que las indicadas en estas instrucciones, las respuestas se corregirán ordenadamente hasta alcanzar la cifra deseada.***

***No olvide incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

**PREGUNTA 1: Puntuación máxima: 2 puntos.**

Lea el siguiente texto y conteste a las cuestiones planteadas:

**LA OPA SOBRE GAMESA, PENDIENTE DE SU APROBACIÓN TRES MESES DESPUÉS DEL ANUNCIO**

Algo más de tres meses después de que Siemens Energy anunciase la presentación de una **OPA** para intentar hacerse con el 100% de las acciones de Siemens Gamesa, la operación está en pleno proceso burocrático. Su autorización es preceptiva para que comience a correr el reloj y los accionistas de la firma eólica vasca puedan tomar una decisión definitiva.

Siemens Energy ya controla el 67% de las acciones de Gamesa, pero ha considerado necesario hacerse con el 100% para salvar la empresa, sumida en una profunda crisis y con pérdidas multimillonarias. Los números rojos acumulados han hecho temer a la **multinacional** germana que su filial dedicada a la energía eólica podía entrar en dificultades de liquidez si, como intuían, la banca cortaba el grifo de la financiación ante los malos resultados. Tomando el control de la totalidad de las acciones, han defendido los responsables de la firma, ofrecerán al sector financiero un aval adicional, además del respaldo del conjunto del grupo, para poder refinanciar su deuda y obtener la **financiación** que les permita encontrar la salida a su particular crisis.

El trámite se ha demorado algo más de lo inicialmente previsto, pero la hoja de ruta de Siemens Gamesa contempla terminar todo el proceso antes de que acabe el 2022. Y ello implica no sólo lanzar la oferta de forma efectiva y dejar un plazo para que los accionistas se pronuncien, sino también sacar a la sociedad de Bolsa. Siemens Gamesa ha puesto como condición que al menos un 23% del capital que no controla acepte su oferta, lo que le permitiría tener en sus manos el 90% de las acciones.

La eólica vasca sufre una auténtica sangría económica. En los nueve primeros meses de su último ejercicio fiscal ha perdido 1.226 millones de euros y todo apunta a que el próximo trimestre también será muy negativo. En este contexto, Siemens Energy tiene urgencia en dar estabilidad financiera a la compañía.



Cuestiones:

- Defina y comente las palabras subrayadas en el texto.
- ¿Cuál es la idea principal que se manifiesta en este artículo de prensa?

**PREGUNTA 2: Puntuación máxima: 2 puntos.**

La empresa TALAKO necesita un componente que importa de China para la fabricación de su producto. Teniendo en cuenta los problemas de abastecimiento del último año, se está planteando fabricar ella misma ese componente. La empresa dispone de los siguientes datos: los costes fijos para la producción del componente son de 21.000€ y para producir 10.000 unidades del componente tiene unos costes variables de 15.000€. El precio de mercado del componente importado es de 2€. La empresa tiene una previsión de ventas que requerirá 40.000 unidades del componente.

Con estos datos, calcule:

- ¿Le conviene producir el componente? Razone la respuesta.
- Teniendo en cuenta la previsión de ventas, ¿Cuál tendría que ser el coste fijo para que fuera indistinto fabricar el componente o importarlo?
- Represente gráficamente las dos posibilidades.

**PREGUNTA 3: Puntuación máxima: 2 puntos.**

La empresa SKATE-BOSS fabrica tablas de skate. El pasado año pagó 25.000€ por la compra de materias primas. Consumió todas las materias primas y el saldo medio de éstas fue de 2.500€.

Las ventas del año pasado fueron de 45.000€ (a precio de mercado). El saldo medio de los clientes fue de 12.000€.

Otros datos:

- Los costes de producción anuales fueron 30.000€.
- Las ventas anuales (a precio de coste) ascendieron a 34.000€.
- Se tardaba un promedio de 30 días en pagar a los proveedores.
- El saldo medio de productos terminados de skates fue de 2.800€.
- El saldo medio de los skates que estaban en proceso de producción fue de 2.900€.
- 1 año=365 días



**ENPRESAREN EKONOMIA**

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

Calcule:

- a) El periodo medio de maduración económica y explique su significado.
- b) El periodo medio de maduración financiera y explique su significado.

**PREGUNTA 4: Puntuación máxima: 2 puntos.**

- a) Indique si las siguientes afirmaciones son verdaderas o falsas. Razone la respuesta.

1. El capital de una sociedad anónima está dividido en acciones y la responsabilidad de la sociedad es ilimitada.
2. La parte de los beneficios que una sociedad anónima reparte entre sus accionistas se denomina dividendo pasivo.
3. El organigrama de una empresa es la representación gráfica de la estructura organizativa de la empresa.
4. El objetivo del sistema *just in time* consiste en tener el máximo de existencias en el inventario reduciendo así los costes.
5. El fondo de maniobra positivo de una empresa indica que el pasivo corriente es superior al activo corriente, y que la empresa tendrá dificultades para pagar sus deudas a corto plazo con el activo corriente.
6. El método DAFO es un método de análisis de factores internos y externos que pueden afectar a la empresa. Por un lado, se analizan las fortalezas y debilidades y, por otro, las oportunidades y amenazas.
7. Los *trusts* son asociaciones empresariales del mismo sector productivo. Tienen un control casi total sobre el mercado y se ponen de acuerdo en la estrategia de los precios y las ventas.
8. Una *start up* es una empresa tradicional.
9. En el contrato indefinido no se especifica la fecha de extinción del contrato. También se conoce como contrato fijo.
10. El Expediente de Regulación de Empleo (ERE) es un procedimiento utilizado por las empresas en situaciones de extrema gravedad, para reducir gastos mediante reducción de plantilla o reducción de jornada.



**ENPRESAREN EKONOMIA**

**ECONOMÍA DE LA EMPRESA**

**PREGUNTA 5: Puntuación máxima: 2 puntos.**

La empresa HOTZIZER S.A. se dedica a la compraventa de guantes, y durante el mes de mayo ha registrado los siguientes movimientos:

01/05 Existencia inicial	27 unidades 10,60 €/un
07/05 Compra al proveedor JAKA	33 unidades 11,00 €/un
10/05 Venta al cliente KIROL	37 unidades 19,35 €/un
15/05 Compra al proveedor ASTUN	58 unidades 11,20 €/un
18/05 Venta al cliente SPORT	20 unidades 21,50 €/un
23/05 Venta al cliente SNOW	30 unidades 22,95 €/un
30/05 Compra al proveedor BAQUEIRA	77 unidades 11,50 €/un

Con los datos anteriores rellene la ficha de almacén del mes de mayo con los métodos de valoración FIFO y el precio medio ponderado (PMP) y calcule las existencias finales y el valor de estas existencias.

**PREGUNTA 6: Puntuación máxima: 2 puntos.**

La empresa GAUTZO quiere adquirir una máquina para la ampliación de su negocio en los próximos años y debe elegir entre dos opciones de inversión, la A y la B.

**INVERSIÓN A**

El proyecto de inversión tiene una vida útil de 4 años. La máquina cuesta 105.000 €, y se paga un tercio en el momento de la compra. Otro tercio se pagará a finales del primer año, y el tercer pago, el último tercio, a finales del segundo año.

Esta inversión le permitiría cobrar 40.000, 50.000, 60.000 y 46.000 euros respectivamente en los cuatro años de vida útil, por la venta de los productos que quiere fabricar con la nueva máquina. Los costes de producción que habría que pagar cada año serían de 5.000, 10.000, 15.000 y 7.000 euros, respectivamente. Al finalizar la vida útil de la inversión se prevé cobrar 2.000 € por su venta.

**INVERSIÓN B**

La duración de esta inversión es de 3 años y supone una inversión de 110.000 €. La mitad del precio de la máquina se paga en el momento de la compra y el resto, al final del primer año.

Se contrataría el mantenimiento de esta máquina, abonando por ello 300€ al final de cada año de funcionamiento. Los flujos netos de caja que ofrecería esta inversión (sin incluir los gastos de compra y mantenimiento de la máquina)



## ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

serían de 20.000, 25.000 y 35.000 euros, respectivamente, durante los tres años de funcionamiento. A finales del tercer año se prevé vender la máquina por 20.000 €.

Teniendo en cuenta que la tasa de inflación anual estimada es del 5,9% y que quiere obtenerse un 3% de rentabilidad mínima:

- ¿Qué proyecto es el más conveniente según el criterio del plazo de recuperación (Pay-back)? Justifique su respuesta.
- ¿Qué proyecto se debería elegir según el criterio del Valor Actual Neto?
- ¿Cuál de los dos criterios (Valor Actual Neto o Plazo de Recuperación) es el más adecuado? ¿Por qué?

### PREGUNTA 7: Puntuación máxima: 2 puntos.

La Empresa "CASTELL" produce y comercializa velas. Durante el año 2022 ha producido y vendido un total de 250.000 velas. Estas velas han sido vendidas a un precio de 1,5 euros la unidad. Para su fabricación, la empresa ha adquirido 400.000 kilos de cera a un coste de 0,25 euros el kilo y se ha gastado 150.000 euros en concepto de nóminas para retribuir al personal de su plantilla. Su plantilla la componen seis personas, de las cuales dos están a jornada parcial (cada una de ellas al 75% de la jornada a tiempo completo). Una persona a tiempo completo trabaja un total de 1.936 horas anuales.

La empresa "FABER", que es la principal competidora de la empresa CASTELL, durante el año 2022 ha producido y vendido 235.000 velas. Su plantilla la componen igualmente seis personas, de las cuales tres trabajan a jornada parcial, realizando 1.258 horas anuales cada una, mientras que las personas que realizan la jornada completa trabajan 1.936 horas anuales cada una.

Teniendo en cuenta la información aportada, se pide:

- Calcule la productividad (por hora de trabajo) en 2022 de la empresa "CASTELL" y de la empresa "FABER".
- ¿Cuál de las dos empresas es más productiva por hora de trabajo en 2022?
- Sabiendo que la productividad de la empresa "CASTELL" en 2021 ha sido de 22,9 velas por cada hora de trabajo, exprese en términos porcentuales o mediante una tasa de variación, el cambio en la productividad (por hora) de la empresa "CASTELL" en el año 2022 respecto al año anterior.
- Calcule la productividad global de la empresa "CASTELL" en el año 2022.



**PREGUNTA 8: Puntuación máxima: 4 puntos.**

La empresa BIHOR S.A. presenta los siguientes datos patrimoniales a final del año 2022:

Furgoneta de reparto	62.000€
Deudas por compra de materias primas	33.200€
Mobiliario de oficina y otros	57.000€
Letras aceptadas por el cliente	81.700€
Adeudado a la Hacienda Pública por distintos conceptos	15.900€
Dinero que tiene en la oficina	28.500€
Local donde se desarrolla la actividad	198.000€
Dinero en cuenta corriente	68.000€
Préstamo bancario a 3 años	240.000€
Amortización acumulada del inmovilizado	18.000€
Maquinaria	46.800€
Materias primas en el almacén	8.400€
Productos terminados	21.000€
Lo que debe a la seguridad social	8.900€
Efectos comerciales aceptados a proveedores	56.000€
Aplicaciones informáticas	12.000€
Equipos para procesos de información	8.900€
Aportaciones realizadas por los socios	xxxxxx

Con estos datos, se pide:

- Redacte el balance de esta empresa clasificándolo por masas patrimoniales y calcule el capital social.
- Calcule el Fondo de Maniobra, represéntelo gráficamente e interprete su resultado.
- Analice la situación financiera de esta empresa utilizando las siguientes ratios:
  - Inmovilizado.
  - Endeudamiento.
  - Liquidez.
  - Garantía.
  - Tesorería.





**PREGUNTA 9: Puntuación máxima: 2 puntos.**

**Cuestionario de actualidad.** Responda a las siguientes cuestiones:

- a) Defina el termino Inflación.
- b) ¿Cuál fue la inflación en España en el 2022? (aproximadamente).
- c) ¿En cuánto han subido las pensiones en el año 2023 con respecto al año anterior? (aproximadamente).
- d) ¿En cuanto ha subido Salario Mínimo Interprofesional (S.M.I.) en el año 2023? (aproximadamente)



**Calcula tu nota en [selectividad.academy/calculadora-selectividad](https://selectividad.academy/calculadora-selectividad)**  
Herramienta gratuita

## ENPRESAREN EKONOMIA.

Probak bederatzi galdera ditu (2 puntuko zortzi eta 4 puntuko bat). Bi puntuko bost galderari erantzun behar zaie, edo, bestela, bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari. Galderak baloratzeko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute irakasleek.

**2 puntuko** galderen artean, hauek daude:

\* Ekonomiari buruzko dibulgazio-testu bat, hedabide sozialetatik hartua, eta eskatzen da edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea. Galderetan, termino batzuk aurkeztutako testuan zer esanahi duten azaltzea eskatzen da, edo testuarekin erlazioa duen argudio ekonomikoren bat azaltzea. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

\* Galderetan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Teknika egokiak menderatzea eta lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko dira.

\* Galderetan, ekonomiaren arloko terminoen ezagutza eta termino horien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Balantze-analisi bat ere egiten da proban. Galdera horrek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desoreka eta desdoitze posibleak hautemateko gai izatea. Bereziki balioetsiko da ikasleak emaitzen zentzu ekonomikoa ulertu eta interpretatzea. Akats aritmetikoen kasuan, ikasleak egiten duen arrazoibidearen ebaluazioak lehenetsia izan behar du zenbakizko emaitzaren zuzenketaren aldean.

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: ikasleak gai honetarako ezarritako gaitasunak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratzeko-maila adierazi behar du kalifikazioak.

**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN  
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie hauei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea, eskemak, marrazkiak, grafikoak, etab., eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango da. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehieneko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoen analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jardura ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoen arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.

● Tu esfuerzo tiene recompensa. Estamos contigo.

Prueba gratis



# Selectividad Academy

Tu academia de selectividad online

● Mejor academia online de selectividad

## Prueba sin compromiso

Primera clase gratis. Sin permanencia. Sin letra pequeña.

- ✓ Profesores especialistas en cada asignatura
- ✓ Clases adaptadas a tu nivel y tus objetivos
- ✓ Todos los exámenes oficiales resueltos paso a paso
- ✓ Calculadora de nota y guía completa en la web

**623 769 002**

Escríbenos por WhatsApp

[www.selectividad.academy](http://www.selectividad.academy)

→ Calcula tu nota en [selectividad.academy/calculadora-selectividad](http://selectividad.academy/calculadora-selectividad)

→ Guía completa en [selectividad.academy/guia-selectividad](http://selectividad.academy/guia-selectividad)

→ ¿Tienes dudas? Escríbenos sin compromiso